

MUGAKO LOREAK

Egilea: Yurre Ugarte

Errej. Intel. Zenb.: 2.673

Testuingurua: 2006.urtea.

Espainiako Gobernuak 2006ko Maiatzaren zazpian isten zuen atzerritarrak legeztatzeke epea. Hau dela eta, ehundaka pakistandar, Paristik etorriak, gerturatu ziren Hendaiara muga zeharkatzeko asmotan: gutxi batzuk lortu zuten Espainiarako bidea egitea, beste asko (230) Irunen, Biriatur edota Behobian atxilotuak izan ziren eta Frantziara bueltatuak.

MUGAKO LOREAK

-I- SARA

Egongela aseptiko-modernoan koloretako argi beroak piztu-itzalian dabilta, rock kontzertu baten moduan. Alde batean lorategira ematen duen leihatea dago, pertsiana metalikoz instalita. Beste aldean ispilu horizontal luzea, buruaren alturan.

45 urteko gizona abesten ari da, rockero tankeraz, besaulkiaren gainean zutik jarrita.

Izkinean, apenas antzematen den emakume bat: mahai batera eserita dago, ordenagailu eramangarrian idazten, flexo baten argitan. 40 urte ditu.

JONI:(agresibo) Uaaahhhggggg! Uaghhhhhhhhh!

Abestia bukatzen denean, grabatutako txalo zaparrada entzuten da.

SARA: Zergatik ez duzu zure porrotaren kontzertua entseiatzen? Ze... Nola demontre dakizu *beti* txaloka erantzungo dizutela?

JONIK mikrofonoa eskuan balu bezala erantzuten dio.

JONI: Hurrengo abestia dedikatuko dizut: "Jelosia " deitzen da. Sara, ene emaztearentzat.

SARA:"Rockero patetiko zuhurra gainbehera saihestu nahian" deituko da idazten ari naizen istorio hau... Mila eta bat atal izango ditu, zure egoak bezala... (*pazientziaz*) Mesedez, jeitsi bolumena eta utzi pake santuan.

JONI: Utzi, bai; zuk niri, pake santuan entseiatzen.

SARA: Hamaika bider utzi zaitut pakean-eta! Egongela honek zurea ematen du, taldearekin lokalean entseiatuko ez bazenu bezala!

JONI: Artistok gure maniak ditugu. Dagoeneko jakinaren gainean behar zenuke.

SARA: Eta ni, ez al naiz artista? Dagoeneko jakinaren gainean behar zenuke.

JONI: Armairuan milaka paper idatzirik daukazula badakit... Ofizialki, funtzionaria izan zara joan den astera arte.

SARA: Zorioneko astea!... Nire manien garaia heldu da, Joni.

JONI ispiluaren aurrean jartzen da. CD-PLAYERA pizten du eta rockero plantak egiten, karraxika abesten du, ahots sakonaz.

JONI: "Gaitza, zurekin bizitzea, gaitza zurekin amestea..."

SARA: *(zutituz, etsita)* Zertarako jartzen zara ispiluaren aurrean?!

JONIK bere horretan jarraitzen du, jaramonik egin gabe.

SARA: Itsu batek baino gutxiago ikusten duzu eta!

JONI mugitzen da egongelan zehar rock abeslari basatiak taula gainean egingo lukeen bezala. SARARENGANA gerturatu da. Musika ozenki. SARARI gerritik heltzen dio. SARA askatu egiten da.

JONI:(abestuz) “... nire gaitza...”

SARAK leihateko pertsiana igo eta lorategira aldegiten du.

Lorategiko zati bat lorez beteta dago, gainantzekoa sastrakak jan duen hesia eta belar luzeak dira. SARAK lorategiko guraizeak hartu ostean, belar luzeak mozten hasten da, nerbio bizian.

SARA: Zizare guztiak akatuko ditut!...

Sastraka artean esku bat azaltzen da eta gizonezko ezezagunaren ahotsean OIHUA entzuten da.

NABIL: No! No! No!

SARA:(beldurtuz) Ai ene!

Sastraka artetik gizon bat azaltzen da, makurtuta. SARA atzeratu egiten da. Gizona NABIL da, 28 urteko pakistandarra, zatar jantzia, bizarra, halere lerdena. Zutitu eta irribarrez hasten zaio SARARI.

SARA: Nor demontre za...?

NABIL: Nabil Uzma Khan.

SARA: *(aztoratuta)* Nabil?... Zer da hau? Zer arraioa, zer egiten duzu gure etxeko lorategian?

NABILEK hitzegiten du atzerritar azentuarekin, zehaztu ezin den azentu frantziarra edo ingelesa, edo auskalo. Hitzegiteko modu espresiboa dauka, batzuetan euskaraz ongi atondutako esaldiak botatzen ditu, bestetan berriz euskara mugatua agertzen du, ingelesezko, frantsesezko edota gaztelerazko hitz eta esamoldeak tartekatuz.

NABIL: Nabil. Pakistan.

SARA: *(jabetuz)* Aaaa!... Bai, bai. Telebistan ikusi dut albistea! Espainiako atzerritarren legea probestu nahi duten horietakoa zara? Pozik egongo zara, jada muga zeharkatu duzu, Irunen zaude. Ulertzen didazu?

NABILEK buruarekin baiezkoa egiten du.

SARA: Paristik zatoz? *(frantsesez)* Vouz... A ez! Pakistandarrek ingelesez egiten duzue...

(ISILUNEA)

NABIL: Duela urte bete Pakistan-Paris-Biarritz...

SARA: Euskaraz!?

NABIL: Ni, Miarritzeko ville batean jardinier, ilegal, kontraturik ez.... Le chef, eskualduna zen, nik ikasi.

SARA: Arras ongi esango nuke nik, alajainkoa!... Zera, eta Miarritzekoa utzi duzu?

NABIL: Oui. Kontratu gabe, diru gutxi, exploitation, lan asko. Pakistango lagun asko Espainiara, legea ona guretzat... Ni animatu, ere bai.

SARA: (*distantziaz, pentsatuz ez diola ulertuko*) Etorkin artalde gizarajoak...

NABIL: Labezomorroa izan, ez samurra.

SARA: (*harrituta*) Ez, jakina... (*hasperena*) Frantsesen departamentu kuadrikulatua abandonatu eta espainolen arabesko antzuak helburu... Euskal labirintoan galdu zara.

NABIL: (*urduri*) Police, police.

SARA: Nola?

NABIL: (*alde guztietara begira, oso grafikoki ahoskatuz*) Polizia, gu, insektuen bila.

SARA: (*bere buruari*) To historia fantastikoa!

NABIL: (*erregutuz*): Gorde, gorde!

SARA: (*kanporantz begiraturaz*) Ez ditut ikusten. Joan dira dagoeneko. Mmm, saihestu egin dituzu.

NABIL: Gorde, gorde!

SARA: Ez zaitut salatuko, lasai.

NABIL: *(arnasa sakonki hartuz)* Merci.

SARA: Ez zaitut salatuko baina...

NABIL: *(moztuz)* Ni hemen. Eta "Mayo Siete" baino lehen paperak egin.

SARA: Ulertzen dizut. Atzerritarrak legeztatzeko epea maiatzaren zazpian bukatzen da... Zer esan duzu, ez duzula paperik? Pasaportetik?

NABILEK buruarekin ezezkoa egiten du.

SARA: Orduan, nola sartu zinen Frantziara?

NABIL: *(ordaintzeko keinua eginez)* Dolar. Four thousand. Pasaportea eta visa Pakistan-Paris.

SARA: Four thousand? Lau mila dolar, bale, Frantziara ekartzeagatik.

NABIL: Parisen lana ez, nik dirua ordaindu behar, baina ez nahi kalean eskatu, baina the boss, bai.

SARA: The boss? Jefe? Nagusia?

NABIL: Pasaportea kendu niri, nik ordaindu arte.

SARA: Aaaa. Eta auskalo nola iritsi zinen Miarritzera!... Eta gero dator Espainiako Zapatero inmigranteei legeztatzeke aukerak ematera eta jakina, zuen oinak prest.

Berriro kanporantz begiratzen du.

SARA: Kale lasai honetara ez da inoiz poliziarik etortzen. Beharrik ez dagoelako esan nahi dut. Ondo aukeratu duzu auzoa. Gure etxea, beste gauza bat da.

NABIL: Alone, nola esaten da? Are you alone?

SARA: Ea bakarrik nagoen galdetu nahi didazu?

NABILEK baiezkoa egiten du buruarekin.

SARA: Bakarrik ez naiz bizi...*(bere buruari)* Baina, ze arraio, ia beti bakarrik sentitzen naiz.

JONI agertzen da lorategian.

NABIL: Asalaam aleikum... Kaixo!

JONI: Kaixo, bai! (*harrituta*) Eta hau, nor da?... Ni Joni, eta zu?

SARA: Nabil. Pakistangoa.

NABIL: Nabil Uzma Khan.

SARA: Zera, euskaraz ia euskaldun-berri batek baina hobeto daki, ez pentsa.

NABIL: Nik, ikasi!

JONI: Nondik agertu da tipoa? Zurekin zitatuta al zegoen lorategian? Atetik behintzat ez da sartu.

SARA: Ez, ez! Oraintxe ezagutu dut! (*piztuta*) Bizitzak ematen dituen ezuste horietako bat da, Joni, ez al zara konturatzen?

JONI: Bulegoko lan hori utzi duzunik, badirudi bazter guztietan altxorak aurkitzen diharduzula. Ea noiz heltzen diozun egoera berriari normaltasunez.

NABIL: (*Jonirengana hurbilduz*) Moi, jardiner very good.

JONI: Ni, rock-star.

SARA: Ego kiloak, batenak ohiturak bultzatuta, bestearnak behartuta... Tira, Joni, agian, ez dakit zer pentsatuko duzun, ez dauka nora joan... Miarritzeko chef batekin ikasi zuen euskaraz.

NABIL: (*Joniri*) Lo hemen (*lorategia seinalatuz*) Gau bat. Nik garbitu belarrak. Please! Mercedes!

JONI: Izorra hadi! (*txantxetan*) Sukaldean euskaraz bezain pronto ikasi bazun, gure ezkutuko sukaldaria izan dadila.

SARA: Ezkutukoa? Zer esan nahi duzu?

JONI: Sara, hemen utzi behar al diogu lo egiten, gau batez bada ere?... (*birpentsatuz*) Sastraka garbitzearen truke... Agian, beharbada...

SARA: (*harro*) Poliziaren hatzaparretatik salbatu dut!

NABIL: Please! Merci, esker mila, thank you!

JONI: (*SARari, belarrian*) Ez gara Karitas.

SARA: (*Nabili*) OK. (*bere buruari*) Bihar biharkoak.

JONI: Sara, prestatuko al zara? Badakizu norekin eta non daukagun afaria. Nik ez dut honetaz ezer jakin nahi. Gu kanpoan gauden bitartean ezin utziko dugu tipo hau hemen. Nahikoa buruhauste dauzkagu.

SARA: Afari hori zure gauza da. Ni ez naiz joango

JONI: Davidek grabatu behar digun bideoklipaz hitzegingo dugu, bale, baina haren emaztea ere egongo da. Ez zara aspertuko. Hitza eman genuen.

SARA: Jatetxe japoniarrean afaltzeak epel uzten nau, eta David Garziarena errealizatzailerean emaztearekin luzez hitzegiteak, zer nahi duzu esatea, izoztuta uzten nau hilabeterako. Asperduraren asperduraz erosi dituen Prada eta Gucci guztiak memorizatuko ditut, eta inbidia afalduko dut, besterik ez.

JONI: Zure armairuko arropak ez dira gutxiagorako eta!

SARA: Bon appetit, Joni.

JONI: (*duda-mudatan*) Baina, nola utziko zaitut ezezagun honekin? Agian bera bezalako beste berrogei etortzen zaizkigu. Kamamila eskeini eta doala sartu den toki beretik.

SARA: Zu Pakistanen bazina, paperik gabe, polizia atzetik, etxe bateko lorategian ezkutatuta eta jabeak kamamila edo mentapoleo ziztrina eskeini ondoren popatik

hartzera bidaliko bazintu.... Eeee, lehen munduko musikaria?... *(ziur)* Lorategian egin dezake lo.Bai, Gainera hitza eman diot.

(ISILUNEA)

JONI: Abentura bila zabilta. Hori da gertatzen zaizuna.

SARA: Bizitza eszenatokiaren gainetik ikusten duzu. Hori da gertatzen zaizuna.

NABIL: Jan, jan, jan. Gosea nik!

JONI: Gainera, sekulako kopeta!

SARA: Sekulako gosea, ireki begiak.

JONI: *(SARARI, haserre)* Izan ezazu arrakasta zure liburuekin, ea irabaziek honelako etxea Saint-Tropezen erosteko balio digun!

SARA: Emaidazu denbora.

JONI: *(pazientziarik gabe)* Joan beharrean nago. Zer egingo dugu orduan... tipo honekin?

SARA: Hasteko, zuk esandako kamamila emango diot. Gero, Karitasekoei deitu edo bueno, ikusiko dut, poliziarri ez behintzat, hori argi daukat. *(lorategira seinalatuz)* Eta hor lo egiteagatik ez da ezer gertatzen, demontre.

JONI: Kontuz ibili, mesedez. Etzazu etxe barruan sartu behintzat... (*gerturaturaz, barru-barrutik*) Kale egin didazu, Sara.

SARA: Ez zoaz zubipean ogi apurrak afaltzera.

JONI badoa.

SARAK NABIL etxe barrurantz bultzatzen du.

SARA: Antxoak prestatzen al zituen Miarritzeko chef horrek? Gustatzen zaizkizu?

Gaez.

SARA lorategirako leihatearen kontra jarri da, NABILI begira. NABIL lorategian, hamaka batean etzanda dago, lozakuaren barruan, lotan.

SARA: Ez al da erridikuloa? Zergatik ez dut gonbidatuen gelan sartu? Ofizialki gonbidatua izan ez delako? (*hasperena*) Harroputzak gara. Edo beldurtiak, oso beldurtiak. Ze nazka.

JONI azaltzen da, rock-abestia ahoan, SARArengana gerturatu eta abestia xuxurlatzen dio belarrian.

JONI: ...“Belazean etzanda,
Nire zain zinela
Uste nuen
Belar luzeen besoak...”

SARA: (*moztuz*) *Sakearen hatsa.*

JONI: (*oso alai*) Puf, hiruren artean sake-botila erraz bukatu dugu, bai. Pentsa zazu nire Calvin Kleinen galtzontziloak erakutsi dizkiet eta guzti.

SARA: Soberan ezagutzen ditut.

JONI: Miriamek Brasilgo top-modelen markako tanga zeukan, zilarrezko perlak dituzten tirekin! Eta horixe erakutsi digu hain justu, tiratxo fin hori.

SARA: Ixo! Lotan da.

JONI: Semea al dugu azkenean, edo?

SARA: *(pentsakor)* Semea...

JONI: Goazen bada, Sara, ohera. Aspaldiko partez gure benetazko semea etorriko al da!

SARA: Burua beste toki batean daukat, Joni.

JONI musukatzen hasten zaio. SARA apartatzen da.

SARA: Beste toki batean nagoela, Joni.

JONI: Deslekuan gaude beti gu biok.

SARA gerritik heltzen du. SARA utzi egiten da.

SARA: Aldatzen ari naiz.

JONI: *(auto-animatuz)* Eta zilarrezko tanga hori, Brasilgo top-modelek erabiltzen dutena bezalakoa oparitzen badizut?

SARA: *(urrunduz, bat batean)* Zure buruan dagoena, goitik-behera, eskuinetik-
ezkerrera ezagutzen dut!

(ISILUNEA)

SARA: Zure taldea, zure musika DENA da zuretzat. Gure harremana horren menpe egon izan da beti. (*Joniren plantak eginez*) Seme-alabarik ez oraindik, Sara... Gero etorri da umegaltze hori eta denbora pasatzen ari zait (*desesperaturik*) Hazi guztiak fruiturik eman gabe nire barnean! Mesedez, orain ez esan niri kreazioak ezin duela DENA izan niretzat! Sortu dezakedan guztia atera behar zait. Atera nahi dut!

JONI: (*axolagabe*) Bale, baina nire hazia behar duen kreazio parteari dagokionez, saiatu behar gara, ze, Paristik, gaur egun etorkinak datozte, umeak ez behintzat... Gainera, hitz hauek guztiok ez dute larrijotze sena desagerarazten.

SARA: Nik ere sekulako beroaldiak dauzkat. Baina ez da munduaren akabera.

JONI: (*nazkatuta, Nabili seinalatuz*) Zorionekoa, ez gaitu ez entzuten eta ez ulertzen.

SARA: Guri begirada bat bota eta dena ulertzen da, Joni.

Egunez. NABIL mahaira eserita dago, gosaltzen ari da: SARA parean dago eserita, ordenagailuan idazten, eta aldi berea Nabili galderak egiten. SARA txandal moderno guay batez jantzia ageri da. NABIL berriz bizarrrik gabe, garbi eta itxuroso, soinean Joniren arropak daramatza.

SARA: *(automatikoki)* Hasi zaitezke sastraka kentzen. Eliminatzen. Dena garbitzen, hitz batetan. *(erne begira geratzen zaio, harridura-mirespenez)* Joni dirudizu, bere garai onenetan, begirada ilusioz eta inozentziaz beteta zuenean.

NABIL: *(gehiegi ulertu gabe, baina nahikoa liluratuta Sararekin)* Ok.

SARA: Egia esan, ez dakit inoiz horrelako begiradarik izan zuen, agian nire ametsa zen, edo nire begiradak estali zuen Joni inozentziaz eta ilusioz...

NABIL: Yes.

SARA: Zein ongi geratzen zaizkizun bere arropak, Nabil... *(pentsakor)* Bizitza berria hasiko duzu hemen. Zero-zerotik hasia da zurea. Nirea berriz, zero gehi hirutik hasia da. Etxea daukat, diru piska bat eta ez nago atzerrian. Halere, sorkuntzaren mundua orain arte atzerria bezala izan da niretzat. Bertako hizkuntza menderatu behar dut zerbait lortu nahi badut. Beraz, ez pentsa, nik ere nire lehen pausoak ditut...

NABIL: *(ulertu di nahikotxo eta ingelesez ateratzen zaio)* Yes. Some people... Ni, beti, egunero hasi zerotik. Pakistanen eta now, here. Orain.

SARA: Idazkari gris eta arruntaren lana bukatu ostean, etxera iritxi eta ezkutuan apuntatzen nituen nire ideiak. Joniren musika munduak ziprztintzen ez ninduen momentu bakan hoietan. Eta sentitzen nuen zerbait apuntatzen nuenean, hau da, sortzean, beti zerotik hasten nintzela, historia eta ideia bakoitzak mundu berri bat inauguratzen baitzidan.

NABIL: Ok.

SARA: Garai ederrak datozkigu.

NABIL: *(pozik)* Ni kontratatu?

SARA: Joni konbentzitu behar dut lehendabizi.

NABIL: Nik Mayo siete baino lehen legalizatu, zuk niri kontratatu eta ni pozik. Very good for me and for your garden. Sei egun gelditu.

SARA: Nabil, ulertzen dizut eta saiatuko naiz... Pakistanen, nongoa zara?

NABIL: Rawalpindi. City. Hiria.

SARA: Bin Ladenen edo Al Qaedaren aldekoa?

NABIL: Zergatik guztiek gauza bera galdetzen? Ez da inor niretzat, Bin Laden.

SARA: Madrassa hoietako batean ikasi al duzu? Pakistan beteta omen dago.

NABIL: Madrassak dira erlijio eskola islamiarrak.

SARA: Demagun, hemengo seminarioak bezala.

NABIL: Ikasteko aukera bakarra Pakistango toki askotan... Afagnistango gerrarekin, pila bat sortu. Dirua Saudi Arabiatik, Sobietarren aurka borrokatzeko madrassak. Militantzia islamikoa eta entrenamendu militarra hobestu ziren, hezkuntza erlijioso erradikala.

SARA: Guztiak dauka bere esplikazioa, ikusten dudanez. Aitortu behar dut ez daukadala ideiarik zure herriari buruz.

NABIL: Madrassa gehienetan wahhabismoaren militanteak.

SARA: Wahhabismoa. Lehenengo aldiz entzuten dut hitza, pentsa ezazu.

NABIL: Askorentzat da edukazio bakarra. Ulertzen? Zu journalist zara?

SARA: Ez, ez, ni ez naiz kazetaria, lasai. Nire jakinmina asetu nahi dut. Imajinatu nahi nuke hemengo paralelismoa. Apaiz katoliko fundamentalistetan fundamentalistenak, gudari katoliko erradikalak sortzen, hezitzen, mmm. Eta besteak hiltzeko entrenatzen.

NABIL: (*zutituz*) OK. Ni jardnier erradikala. Zure lorategia, nire erlijioa.

SARA: (*gogoratz*) E? Aaaa! Lorategia?... Berria diseinatuko dugu. Ongi aukeratutako landare eta loreak landatuko ditugu.

NABIL: (*lorategirantz*) Fruitu, fruitu, fruitu.

SARA: Itxaron! Eta zu? Non sartzen zaitut? Madrassa batetik pasatakoa zara? Pobreziak jotako beste inmigrante hoietakoa?

NABIL: 'Pindikoa, Rawalpindi. Familia da pashtung, mendian bizi, Besham-en. Behin egon ni han, oso ederra. Karakorum Highway. Txina ondoan. Himalaya bezala, Karakorum, mendi ooosooo gigantic.

SARA: Ooo, muga batetik bestera.

NABIL: Han dena oso ederra.

SARA: Non, Rawalpindin edo mendian?

NABIL farrez algaraka hasten da.

NABIL: Ederra da dirua.

SARA: Jardiner al zinen Pakistanen ere?

NABILEK barrezka jarraitzen du.

SARA: Ergela naiz?

NABIL: Rawalpindin, aitarekin saldu merkatuan eta baita ikasi, nik bakarrik.

“Animalien medikua” izateko. Baina diru gutxi. Aita Beshamera bueltatu familia osoarekin. Hirian malo-malo bizi, emaztea, semeak... Azkenean, ni Europara.

SARA: Unibertsitateko ikaslea, zu! Ezkondua! To istorio errealista, Sara!

NABIL: “Animalien medikua” orain hemen ikasi... Emaztea, han.

SARA: Aaaaa.

NABIL: (*oso serio*) Do you understand me?

SARA: (*moztuta*) Bai, bai. Ulertzen dizut.

NABIL: (*bihotz minez*) Ikasi, lana, emaztea! Umeak! Dirua.

SARA: Baina, madrassatik pasa zara, bai ala ez?

NABIL: Ez.

SARA: Aaaa. (*erabat ausartu gabe*) Eta, eee... (*azkenean, bai*) Zenbat emazte dituzu?

NABIL: (*bihurri*) Nik emazte asko han, ez etorri Europara. (*serio*) Nik emaztea han, bat. Emazte asko bakarrik diru asko daukanak.

SARA: Tira... (*hasperena*) Eta, zein da zure hizkuntza?

NABIL: Aita eta amarekin, pashto. Rawalpindin denak urdu. Eta english, of course.

JONI azaltzen da, txandal batez jantzita, irribarretsu. SARArengana doa, musu ematera.

JONI: Egun on! (*Nabili*) Bon jour, good morning! Nola demontre hitzegin behar zaio honi?

NABIL: Egun on! (*Jonirengana gerturatuz*) Gaua untsa izan?

JONI: Dedioooo!... Zure Miarritzeko sukaldari nagusi hura Haristchelarren semea edo izango zen gutxienez, ez?

SARA: Nabil tipo azkarra da, besterik ez. Han ohituta daude hizkuntza ezberdinak entzutera egunero.

JONI: (*ohartzean, haserretuz*) Zeeee... Erotuta al zaude, Sara? Nire arropa eman diozu!

NABILEK azaleko irribarrea bota ondoren lorategira aldegiten du bizkor.

SARA: (*ironiaz*) Nireak txikiak geratzen zitzaizkion. (*serio*) Zer utzi behar nuen, biluzik? Bere galtzak eta kamiseta garbitzera bota ditut. Galtzontzilorik ez zeukan.

JONI: Ikusi egin diozu?

SARA: Zer?

JONI: Zakila, neska.

SARA: (*aspertzen*) Komunean aldatu da eta ez dit galtzontzilorik eman garbitzeko. Horregatik diot ez daukala galtzontzilorik..

JONI: Galtzen gainetik ipurdiari eta zakilari erreparatzen aritu zara.

SARA: Tira, Joni, gizon puska bat da, bale, baina zentzu guztietan, ez bakarrik fisikoari dagokionez. Eta, zuk zeuk diozun moduan, begiradak edertasuna bilatzen du beti.

JONI: A, eee, bai... (*aldatuz*) Egia ote da Miarritzeko historia hori? Ez ote zuen dirurik irabazten galtzontzilo parearen erosteko adina?

SARA: Gertatzen da diru guztia Pakistanera bidaliko zuela. Emaztea eta seme-alabak omen ditu. Historia benetan hunkigarria da, Aladinoren lanpara miragarritik oso urrun.

JONI: Historia? Gure bizitzan arrapaladan sartu da-eta! Honek ezin du horrela jarraitu.

Orain arte lorazain gabe bizi izan gara.

SARA: Orainartekoak gutxi balio dit.

JONI: Hamaika bider entzun dizut hori pasa den urtean eta dagoeneko eman duzu lehenengo pausoa. Bale?... Argitu beharko duzuna da nirekin jarraitu nahi duzun ala soilik nire kontura.

SARA: (*sakontasunez, apasionaturik*) Joni! Historiarik interesgarriena daukat lorategian. Nire fikzioak baina askoz errealagoa da. Gau osoa pasa dut horretan pentsatzen, amestu dut sekulako nobela bat gaur-egungo munduan halabeharrez etorkin direnei buruz. Munduko mugak ezabatzearen gezur hori... Nabilek lagunduko dit, eta nik berari.

JONI: Gu bion artean sekulako alanbrada ezartzen ari zara.

SARA: Orain arte zure mugetan barna izan nauzu. Izan naiz zure groupia, izan naiz zure laguna, zure maitalea, zure idazkaria, zure fans-klubaren sortzailea, zure emaztea. Euskal Herrian inoiz rock-talde batek lortu duen arrakastarik handiena lortu duzu, harro zaude zure buruarekin. Tira, nik ere egon nahi dut, harro. Ate batzuk itxi eta beste batzuk irekitzen dihardut, besterik ez.

JONI: Erakutsi beharko duzu benetan sormen gogo hori barrundik datorkizun edo nireganako inbidiak eragin duen.

SARA: Zergatik zalantzan jarri nire gogoia benetakoa den. Zureak besterik balio al du? (*suspirioz*) Egia esan, zure musika munduari esker egiten zitzaizkidan jasangarriak lan

administratibo horretan ematen nituen orduak. Beti irtetzeko gogoz zure entseioak jarraitzeko edo kontzertura guapa-guapa prestatuta joateko, edo maketa berriak entzuteko, zure diskak lagunei oparitzeko, ez dakit nongo kazetariaren kritika markoan ipintzeko. Guzti hori gustura egin dut, nahi nuelako.

JONI: (*hunkituta*) Eskertu izan dizut...

SARA: Halere, inoiz ez dut izan duintasun minimoa nire buruari kaso egiteko. Gutxietsi egin ditut *nik neuk nire* ideiak! Idaztearen ideia baztertu nuen haseratik, pentsatuz, barre egingo zidatela, ni inoiz ez nintzela gai izango. Oinarrizko auto-mespretxua eta jakina, aldi berean, besteak, besteekiko eta besteentzat bizitzea. Zuri inoiz ez litzaizuke horrelakorik okurrituko!

JONI: (*gainezka*) Bale... Goiza da. Eguna arinago hasiko bagenu...

SARA: (*ozpinduz*) Esan nahi duzu gaur ez duzula gogorik zure musika ozenki entzunez eguna hasteko eta hobe dudala isiltzea, ez?

Jonik ez daki zer erantzun, deseroso da: alde batera begiratu eta lorategian, NABIL ikusten du. NABIL sastraka mozten dabil. Entzuten dugu OZENKI lorazain-goraizea ZAK, ZAK ZAK, dena mozten. Jarraian SARARI begiratzen dio Jonik: SARA ordenagailuko teklak sakatzen dabil buru-belarri, TAK, TAK, TAK, OZENKI entzuten ditugu. JONIK alde batera begiratu eta goraizien hotsa, beste aldera begiratu eta ordenagailuko teklen hotsa entzuten ditu. BI HOTS EZBERDINAK, bata bestearen gainean, aldi berean, OZENKI.

-II: JONI

JONI egongelako ispiluaren parean da, aurpegi ezberdinak jartzen abestia ahoskatu egiten duen bitartean, doinurik gabe. DAVID GARZIARENA bideo-errealizataileak mini-bideokamera bat dauka eskuan eta JONI gertutik grabatzen dihardu. DAVID Joniren adinekoa da, perfekzionista, grazioso antzekoa, ilea zerora moztua, posmoderno itxura. Lorategirako leihatea itxita dagoen arren, lorategian Nabil lanean ikus dezakegu, erdi ilunpetan.

JONI: *(ahopeka)* “Belazean etzanda, nire zain zinela...”

DAVID: Orain frogatu nahi dut burua sorbaldan geldirik edukiaz ia planoak ongi agoantatzen duen zazpi segunduz, ahoskatzen zauden bitartean, jakina.

JONIK lepoa okertu eta burua ezkerreko sorbaldan apoiatzen du.

JONI: Jode, ile zuri bat!

DAVID: *(ironiko)* Abesti hori ez dut ezagutzen!

JONI: *(ile zuria kenduz ispiluaren aurrean, amorruz)* Oraintxe bertan asmatu diat. Izor hadi, Joni, honey. Hementxe daude berrogeiak!

DAVID: Zuria eta ilea den bitartean, ilea da. Jaiotzen ez direnean, orduan bai, laurogei izatearen sentsazioa!

JONIK ispiluaren bidez Nabil lorategian dela ikusten du.

JONI: Berrogei eta bat.

Gogogabe, eskuarekin Daviden bideokamerako objektiboa estali eta sofa gainera botatzen du gorputza, zakua bailitzan. Davidek kamerarekin jarraitzen dio.

JONI: Tira, utzi hori. Nahikoa entseiatu diagu.

DAVID: Zer, ajea?

JONI: Hori erraz eramaten duk, oraindik orain. Itzaltzeko esan diat, David.

DAVID: Zera, Joni Alberdiren alde ezezaguna grabatu nahi diat. Deseroso, malaletxian, gizona bere intimitatean... Lasai, irudiak niretzako dituk eta.

JONI: Ez nauk ezertaz ziur sentitzen. Taldearekin hasi ginenean, bidea egiteke geneukanean ere, ez zitzaidan hau gertatu.

DAVID: Horrek konpobidea bazaukak.

JONI: Gero eta zailagoa zaidak abestiak asmatzea, letrak, musika... Inork ezin dik hori imajinatu, baina hala duk. Haseran, guri gustatzen zitzaizkigun musikariengandik edan genian, azken finean haien ildoak jarraitu genian, geureratua.

DAVID: Lau diska oso arrakastatsu Euskal Herrian, Espainian eta Polonian. Gero zuzenekoa, gero bilduma, eta orain...

JONI: Maketa berria orain da iristekoa... Ez zekiat, ez diat huts egin nahi, ikusmin handia sortu duk. Eta ez nagok batere ziur. Ezertaz.

DAVID: Sararekin...?

JONI: Jode, Sara oso seguru ageri duk egoera berrian. Nirearekin bakarrik bizi gaituk orain, txo, bere sormen horrek aurrera egiten duen arte. Ardura handia sentitzen diat alde horretatik.

DAVID: Tira, berak zugar konfiantza osoa jarri zian hastapenetan. Gogoratzen ditiat gure haserak: beti esaten nian zorte handia zeneukala, neskalaguna funtzionaria izateak sekulako *koltxoia* ematen zizula.

JONI: Hala izan zuan, bai. Koltxoiean ederki erantzuten nian nik... Orain ere... Aukera daukadanean...

DAVID: Orduan...

JONI: (*temati, gaiari helduz*) Ez duk hain erraza honetan mantentzea.

DAVID: Joni, orainarteko abesti horiei beste buelta bat eman eta kitto. Jendeak igoo-igoo jango dituk. Jendea ez duk ezertaz enteratzen. Disketxe potentea duk zuena,

banaketa zabala, publizitatea besterik ez duk behar mantentzeko. Eta nire bideo-klipak, jakina. Eta sareratu...

JONI: David, hi! Musikari onak beti zaukak zerbait berria eskaintzeko. Nik ordea, orain... Ez zekiat zer eskaini ere...

DAVID: Jendeak betikoa eskatzen dik. Ahaztu kritikoak.

JONI: Errepikatzea ez duk zilegi. Ezin nauk betikoan geratu, lotsa...

DAVID JONIREN ondoan eseritzen da sofán, gertutik grabatzen jarraitzeko.

DAVID: Lotsa, zalantzak eta bideo-zintak.

JONI: Lotsatua egongo nauk oso, disko hau ongi ez baduk ateratzen. Bestalde, Sarak horrela jarraitzen badik...

DAVID: Horrela? Zilarrezko tangarena, zer? Ideia ona duk!

JONI: Ideia ximplea duk, David. Detailea, besterik ez. Sarak, burua eta gorputza, auskalo non zauzkak.. Beste detaile batzuetan, seguru (*lorategira begiratzuz*) Akaso hor, jardinean.

DAVID: (*kamara itzaliz*) Tira, diska kalean denean, elkarrizketa pila bat egiten dizkizutenean, toki guztietan hire aurpegia agertzen denean, orduan, bai, orduan arrimatuko duk! Horrek ez dik hutsik egiten!

JONI: Hire emaztearekin horrela izango duk. Sararekin, ez. Burua galdu nire argazkiekin eta abestiekin, gaur egun? Gainera, harremana ezin duk horretan oinarritu!

DAVID: Bakoitzak bere sekretuak zauzkak harremanean aurrera egiteko, hi. Eta bestela, kitto. Punto final jarri...

JONI pentsakor geratu da. NABIL leihatea joka hasten da. Lorategitik sartu nahi du.

JONIK ezezkoa egiten dio eskuarekin. NABILEK atejoka jarraitzen du.

DAVID: Nor dugu?... Lorazaina hartu al duzue?

JONI: (*ironiko*) Sararen gauzak: pakistandar hoietako bat...

DAVID: Etxegintzan pakistandar mordoa sartu duk. "A" ere ez omen dakite esaten kastilanoz.

JONI: Izor hadi. Honek berriz E.G.A aterako dik laister.

Altxa eta leihatea irekitzen dio Nabili.

JONI: Zer dugu, Nabil?

NABIL: Toilet.

JONIK pasatzen uzten dio. NABILEK jantzia lurrez zikindua darama. TXIRRINA entzuten da.

JONI: Tira, hau mezularia izango duk, maketarekin. Estudioan entzungo dugu.

JONI eta DAVID desagertzen dira. NABIL bakarrik geratzen da. OFFean JONIren ahotsean, abestia entzuten dugu: ahots sakona, pop-rock banda baten musikarekin datorrena. NABIL komunerako bidean den arren, entzutera geratzen da eta, aldi berean egongela osoa erreparatzera.

ABESTIA: Belazean etzanda,

Nire zain zinela

Uste nuen

Belar luzeen besoak

Zure hankekin nahastuak zeudela

Uste nuen

Oinak arin

Mugitu nituen...

JONI eta DAVID badatoz berriro. NABIL badoa komunera ziztu bizian. ABESTIAren hotsak desagertzen dira.

DAVID: Lasai, lasai. Hau primeran zegok. Hire betiko estiloan, sekulakoa, hi.
Lan polita egin du teknikoak. Beste arrakasta, Joni.

JONI: Ez zekiat.

NABIL bueltatzen da WCtik. JONIRENGANA gerturatu eta OK zeinua egiten dio eskuarekin.

NABIL: Abestia, Good, very good! Achaah!

DAVID: Kontxo. Ni, David Garziarena eta zu?

NABIL: Nabil Uzma Khan. Nabil.

DAVIDEK eskua luzatzen dio.

JONI: *(moztuta)* Zera, ez duk musikari. Lorazaina edo antzeko zerbait.

NABIL: Animalien medikua ikasi nik.

DAVID: Albaitaria al zara?

JONI: *(moztuz, keinuka)* Nabil, begira, maketa entzuten jarraitu nahi dugu. Eta...

NABILEK burua makurtu eta eskuarekin agur esaten du. Lorategira joaten hasten da.

DAVID: Hi, paki! Entzundakoa gustatu zaik, ezta?

NABIL: Bai, bai!

DAVID: Belarri ezezagunengan lehenengo arrakasta, Joni. Pakistangoa, Nabil?

NABIL: Pakistan, oui. Txina ondoan.

DAVID: Joni, ekialdeko inbasio musikala has zezakek.

JONI: Ilea hartu nahi didak?

DAVID: Dedio! Abestia jarriko diagu berriro. Inportantea da Nabilen iritzia, atzerritarra duk eta ez zeuzkak gurekiko inolako aurreiritziak, ez zekik nor den *JONI ZART* taldea.

Gainera bere musika-tradizioa ez duk hemengoa. Bere musikaltasunari gurea atsegin bazaiok, pentsa dezakegu ekialdeko herrietan ere banaketa egin daitekeela.

DAVIDEK maketa sartzen du CD player-ean.

JONI: Hau guregandik lorazain-kontratua lortzeko irrikan zegok, besterik ez.

JONIREN ahotsak abesten duena entzuten da.

ABESTIA: ... Belazean etzanda,

Nire zain zinela

Uste nuen

Belar luzeen besoak

Zure hankekin nahastuak zeudela

Uste nuen

Oinak arin

Mugitu nituen

Zureganantz...

NABIL eskuekin sofa aurrean dagoen mahaia jotzen hasten da, danborra bailitzan.

JONI: *(ironiko)* Akonpainamendu ederra.

DAVIDek kamarakin grabatzen du. NABILEK gero eta indartsuago jotzen du mahaia, abestiaren doinuari jarraituz. JONIK bapatean CDa kentzen du.

JONI: *(erretxinduta)* Nire bakardadean entzungo diat maketa osoa.

DAVID: Soinu graziosoa sortu dik. Beste kutsua ematen zioz abestiari, trapatatatan, tantan horrek. Rockaren gainetik, azpitik, edo ondoan.

NABIL: Pakistanen, bi danbor play.

JONI: *(gogo gabe, Davidi)* Bi danbor txiki elkartu hoiek, uste diat “tabla” deitzen direla. Toki eta kultura ezberdinetan jotzen dituzte.

DAVID: Joni, zergatik ez duzu berarekin probatzen? Hemengo estudioan, biak. Bata abesten eta bestea... Gogora ezak, Joni, hik esandakoa: ez errepikatzearena, orijinaltasunaren buruhauste hoiek. Hemen duk aukera.

JONI: *(errezeloz)* Utzi pakean! Hau ez da musikaria, ezta deus ez!

DAVID: Oraindik egun batzuk zauzkak nahi adina moldaketa egiteko, ez?

JONIK haserre begiratzen du.

DAVID: Dagoen bezala ederki zegok, e... *(bizkarrean zaplada emanaz)* Joni, hire eskutan zegok. Azken finean ni ez nauk taldekidea. Hi, baina sujerentziak ere... Tira, hire erabakiak beti dituk egokienak. Gero deituko diat.

DAVID desagertu egiten da. JONIK ostikoa jotzen dio aireari.

NABIL: *(joandakoari)* Asalaam aleikum! *(Joniri)* Danborra, trapatatan, trapatatan, Joni.

NABIL badoa lorategira. JONIK leihatea itxi egiten du beste ostiko batez. Lorategia iluntasunean geratzen da.

Egongelan, JONI bueltaka, gora eta behera, ezin gelditu dabil. Rock-eszenatokiko argiak pizten dira, soilik Nabilen "danborren" hotsak entzuten dira OZENKI.

JONI gerturatzen da lorategiko leihatera: lorategian piskanaka argi motela piztuko da. Sudurra kristalean pegatzen du Jonik. Lorategian, argi motelpean NABIL SARArekin dantza lotuan ari da. Danbor hotsak gero eta azkarrago entzuten dira. Azkenean, SARA

leihatara doa eta kristalari joka hasten zaio. JONI “esnatu” egiten da, atea irekitzen du. SARA egongelan sartzen denean danbor hotsak desagertu egiten dira. SARA kaletik dator, poltsoa besapean, dendetako beste poltsak eskuan.

SARA: Zer moduz joan da goiza?

JONI: Hau al da etxeko sarrera nagusia?

SARA: Lehen, lasterketetako zaldia izan behar zen kaletik lorategira pasatzeko. Lorazaina edukitzearen abantailak, Joni. Hesiaren inguruko sastraka guztia moztu du.

SARAK poltsak lurrean utzi eta zapatak kentzen ditu. Gero sofan eseritzen da.

JONI: Niri gustatzen zitzaidan.

SARA: Naturak menderatuta bizi ginen. Urtean bitan mozten zenuen belarra, eta nik berriz ura botatzen nien zure izebak ekarritako landareei. Zorte handirik gabe, egia esan.

JONI: Hesiak kaleko kuriosoengandik babesten gintuen. Kimatzea nahikoa zen.

SARAK txaketa kentzen du, mahaira doa eta ordenagailua pizten du.

SARA: *(ilusioz beterik)* Loreak haziko dira, kolore guztietakoak...

JONI: Benetan uste duzu Nabil, tipo hori, horretarako gai izango dela? Benetan sinetsi diozu Miarritzeko “gaztelu” batean lorazaina zela?

SARA: (*gerturatuz, serio*) Miarritzeko txalet batean, bai. Zergatik ez diozu sinetsi nahi?

JONI: Ederra sartu digu horrek! Apostu egingo nuke ez dela Pakistangoa baizik eta patera batetan etorri den “Josemari” horietako bat. Edozer gauza saltzen duten horietako bat, eta horrela ikasi du euskaraz. Ez Miarritzeko txalet batean.

SARA: Zergatik ez Miarritzeko txalet bateko chef euskaldunarekin? Zuk bertsio arruntena sinistu nahi duzulako?

JONI: Tira, horrela balitz; zergatik ez zen txalet polit horretan geratu?

SARA: Kontraturik gabe zutelako. Orain gurekin dauka aukera. Eta aste honetan erabaki beharra dago.

JONI: (*gogor eta lehor*) Salatu egingo dut, Sara. Hemen, ilegal, beste egun bat igarotzen badu, salatu egingo dut.

SARA: (*lehor*) Ez duzu horrelakorik egingo.

JONI: Ez dut lorazaina izateko asmorik. Ez dut paperik sinatuko eta are gutxiago nire dirutik ordainduko.

SARA: Hori egitera ausartzen zara?! Orduan, ni ausartuko naiz hedabide guztiei deitzera eta zuk egindakoa aireratzera. Rock izarra arrazista eta zapaltzailea, Joni Alberdi, Joni Zirt taldeko liderra, fatxa!

JONI: (*lasaitu nahian*) Ni ez naiz horrelakoa, ongi dakizu zuk! Halere, ez dut nik irabazitakorik gastatuko lorazain bati soldata ordaintzeko. Nahi baduzu, donazio bat egingo dio taldeak ONG bati, edo Pakistango Fundazio bati edo zuk nahi duzunari.

SARA: Elkartasuna distantzian, badaezpada.

JONI: Eta esaiozu berehala nire arropa kentzeko.

SARA: (*jaramonik egin gabe*) Mmm, albaitaritza ikasketak ordainduko zenizkioke? Hori izan ahal da beste konponbide bat.

JONI: (*barrezka hasiz*) Hori ere sinetsi diozu? Benetan uste duzu horrek albaitari ikasketak hasi zituela Pakistanen?... Eta hala balitz ere, gazteleraz edo euskaraz ikasketak egiteko gai ikusten duzu?

SARA: Tira, aukera badu, zergatik ez. Ez duzu kontratatu nahi, bale. Joan dadila lanera beste edonora, baina guk ikasketak ordainduko dizkiogu.

JONI: Gure semea izango balitz bezala, ezta? Baita unibertsitarien etxebizitza Bilbon ordaindu ere, ez da hala?

SARA: Zure abestietan mugako egoerak azaltzen dituzu askotan, baita mugak hausten dituzten pertsonaiak ere. Non dago Joni hori?

JONI: (*etsita, eskutik heltzen dio*) Sara, ez dut beste gizonik nahi etxe honetan. Eta are gutxiago problemak ekarriko dizkidan gizasemea.

SARA: Gizon horrek dauzka problemak, ez zuk.

JONI: Zeeer? Badakizu nolakoa den artistaren bizitza, joan-etorri, gora-beherak, entseioak, harremanak, eta abestiak ateratzen ez direnean, buruhausteak. Zuk idazterakoan ez al duzu behar pakea inguruan, besteenganako ate-iste hori, nirekiko mugak ezartze hori, finean?

SARA: Ados, arrazoia duzu horretan. Nabil hor izango dugu lorategian lanean eta kitto. Ez da zure munduaren parte izango.

JONI: (*ironiaz*) Bai. Eta nator egun batean eta zurekin lorategian dantzan aurkitzen dut, gaur bezala.

SARA: Zeeer? Lorategian dantzan? (*gustuko*) Ideia ona, egia esan. Lorategi berrituaren inaugurazioa egingo dugu, musika eta guzti.

JONI: Disimulatzen ari zara. Ikusi zaituztet lotu-lotuta dantzan.

SARA: (*eseri egiten da ordenagailuaren aurrean*) Eta musika non zegoen entxufatuta, lorontzi batetan? Edo agian nire sakelekoaren melodiari dantzaka ari gintzaizkion?

JONI: Ikusi egin zaituztet, SARA.

SARA: Iruditzen zait edozein aitzakia aterako duzula Nabilen aurka.

(*ISILUNEA*)

JONI: Maketa berria entzun behar duzu. Agian moldaketa batzuk egingo dizkiogu baina, bai, zure iritzia nahiko nuke.

SARA: (*erosketetako poltsetatik zenbait liburu ateratzen ditu*) Pakistani buruzko liburuak erosi ditut. Dokumentazioa nire nobelarako.

JONI: (*ozpin*) Horrenbeste ideia kaxoietan, horrenbeste historia zure buruan eta orain, bat batean agertzen denari buruzkoa idazten hasi behar! Ez dut ulertzen. Edo zenituen guztiek ez zuten piperrik balio, edo ez zenituen horrenbeste, edo ez zaude zure ideiekin oso seguru.

SARA: Guztiz ziur al zaude beti zure ideiekin? Edo abesti bihurtu eta arrakasta izan dutenean jabetzen eta ziurtatzen zara?... Bestalde, ez dira ideia asko behar, hasteko, bat bakarrarekin nahikoa da! ... Eta ez ditut baztertu nire ideiak. Nabil ardatz eta inspirazio iturritzat hartu nahi dut, benetazkoa delako, erreal. Abiapuntu bat besterik ez da, Joni. Nola ez dut bada kontutan hartuko? Hitzegiozu Nabili mugarik gabeko zelai unibertsal

berde paradisiakoaz, non guztiok, ardien antzera, alde batetik bestera gabiltzan, inoiz otsoekin topo egin gabe!

JONI: Tira, ez naiz ni horren errudun izango, ez?

SARA: Egin dezakegun apurtxoa egin behar dugu.

JONI: Zuk ogi-apurrak eman eta haiek gu ogirik gabe utzi! ... Zeren, noizbait nobela hori argitaratzea lortzen baduzu, emango al dizu Nabilen ikasketak edo soldata ordaintzeko?

SARA: Lehendabizi idatzi egin beharko dut.

JONI: *(erretxinduta)* Distrazio handiegia daukazu belar artean... Jada ez dakit nor zaren ere.

SARA: *(bere artean)* Ez duzu jakin nahi... Melodia hori ezagunegia da niretzat...

-III: NABIL

EURIAREN HOTSA. NABIL lorategitik egongelara sartzen da. SARA eseritzen den tokian ordenagailua irekia dago, liburuak eta koadernoak ere irekiak daude, inor ez dago ordea.

NABILEK arropa zikina darama, apur bat bustia, botak lokatztuak: SARAK idazten duen mahaiaren inguruan bueltak ematen ditu, guztiari erreparatzen. Pakistani buruzko liburuak eskuan hartu eta gainbegiratzen ditu. Irribarrea eta harridura.

Mahaiaren gainera bueltatzen ditu eta SARAREN sakeleko telefonoa hartzen du. NABIL irribarretsu da: telefonoan zenbaki bat markatu eta hitzegiten hasten da, keinu ugari bidez. Ez dugu bere hizketaldia entzuten, EURIA baizik, SARA sartzen den arte.

NABILEK telefonoa mahaiaren gainera bueltatzen du bizkor, eta mahaiari joka hasten zaio, danborra bailitzan, disimulu inprobisatuan.

SARA sukaldetik dator, eskuan ur-botila eta sandwichez betetako bandeja dakar.

Mahai gainean uzten du, gero leihatea isten du; EURI HOTSA desagertzen da.

SARA: Lanean jarraitu ahal izateko jateko zerbait... Mm, gustura nago zurekin hemen...

Zure herriko abestiren bat al zen hori?

NABIL: *(mahaia jotzeari utziz)* Pretty song. Joniren abestiari, Pakistango danborra.

Bi danbor dira. Ni saiatu eta jo. Joniren abestiarekin.

SARA: *(harrituta, eseri gabe)* Yes... Baina mahai honetan ez, mesedez.

NABIL: Nik Joniren band entzun goizean. Gustatu. Nik, danborrak jo. Haiek entzun.

Gustatu.

SARA: *(kasorik egin gabe)* Danborrak? Non dauzkazu? Tira... Egia esan, Joniren berria, betiko estiloan, ziur ondo egongo dela. Hartu lasai sandwich batzuk, Nabil.

NABIL: *(sandwich bat hartuz eta janez)* Bai, bai.

SARA: *(sukalderako bidean)* Basoerdi bat ekarriko dizut.

JONI sartzen da.

SARA: Zuk ere hartuko duzu zerbait. Botila ekarriko dut eta kitto. Jateko gehiago, baita ere.

Desagertzen da. JONI NABILI begira dago, deseroso. Sofan eseritzen da, azkenean. Zerbait esan nahi dio baina ez da ausartzen, ez daki nola. Zutitu eta Nabil eserarazten du. NABILEK jaten bukatzen du, begietara elkarri begiratzen dioten bitartean.

NABIL: Zer?

JONI: Zer iruditu zaizu abestia?

NABIL: Untsa, untsa, Joni.

JONI: Ausartu egingo naiz, Nabil.

NABIL: Zer?

JONI: Oker nengoen eta ausartu egingo naiz. Zure danbor bikiak sartuko ditut. Proba egin, esan nahi dut. Davidek ekarriko ditu gero. Ea nola gelditzen diren, abesti batean soilik, e?

NABIL: Maiatzaren zazpia baino lehen? Antes del 7 de mayo?

JONI: *(berean)* Aste honetan izango da, pentsatzen dut. Gauza handirik ez daukazu egiteko, ez?

NABIL: *(urduri, zutituz)* Eee...

SARA sartzen da, eskuan ardo-botila eta sandwich gehiago.

JONI: Lasai, danborrak abestian jartzea erabakitzen badugu, ordainduko dizugu, jakina. Ez dakit zenbat, nola eta noiz, baina ordainduko dizugu, hori seguru.

NABIL berriro eseritzen da.

SARA: *(gaizki ulertuz, poztuz)* O, Joni! Azkenean erabaki duzu erabaki beharrekoa! Tira, bihar bertan joan gaitezke paperak egitera. Nabil, Jonik esan badizu, hitza beteko du. Ospatu beharko dugu, ez? Joni badago txanpaina bodegan, ezta?

SARA sukaldera bueltatzen da berriro.

JONI: Sara, abiada handian doa zure imajinazioa!

NABIL: Joni, ni, hemen. Zuek untsa nirekin baina...

JONI: Zure izena ipiniko dugu gure diskan, Nabil Khan edo, nola zen? Zure danborrek ekialdeko kutsu fina emango diote abesti batzuei. Ez daukat oso argi baina tira, probatuko dugu...

SARA sartzen da, txanpain-botila eskuan duela.

SARA: Pentsatzen nuen inoiz ez zinela zure onera bueltatuko, Joni. Pozten naiz.

JONI: *(deseroso)* Ez dakit ongi emandako urratsa izango den, Sara. Ezezaguna eta berez musikaria ez dena, gure diskan sartzea... Ez dakit. Halere, erabaki dut, zera, Nabilek abesti horretan danbor bikiak edo tabla izenez ezaguna dena joko duela...

SARAK txanpain-botila mahai gainean uzten du. Ez du guztiz ulertzen.

NABIL: *(gogor, urdu hizkuntzan)* Bas-bas! Bas-bas!

Harrituta, SARA eta JONIK ez dute batere ulertzen. Elkarri begiratzen diote.

NABIL: *(bortitz)* Bas-bas! Enough! Ez, ez eta ez! Inola ere ez! Noooo!

JONI: Putaideiarik ez. No, zer?

SARA: Gaizki-ulertu bat egongo zen. Zer esan nahi duzu? What do you mean?

NABIL: Nik ez jo. Lehenengo, jardiner kontratua. Gero, danborra jo.

JONI: (*haserre, zutituz*) Hemen guk, hobe esanda, nik, jartzen ditut baldintzak!

NABIL: (*oso urduri*) Moi, la maladie. Crazy. Loco.

SARA: Erotuko zaitugu, ezta?... (*onartuz*) Ba, bai!

JONI: Zeharo jota egon behar du! (*harro, urduri*) Zuk ez didazu niri esango etxe honetan zer egin. Eta abestiak bere horretan jarrai dezake, lasai-lasai, danbor madarikatu horiek gabe. Zuk uste baduzu ezinbestekoa zarela, usteak ustel.

NABIL: (*nerbio bizian*) Ni ez naiz tontoa. Ez dakizue ni bezelakoek zeren beharrean gauden? Ez duzue jakin nahi? Esan orain eta ni, ospa!

SARA: (*Nabili besotik helduz*) Zu ez zoaz inora! Joni, bera joaten bada, ni ere joango naiz!

JONI: (*sarkastiko*) Nora? Rawalpindira, edo Islamabadera? Nabili pasaporte berri bat eta bueltako txartela erosi ondoren? Zer egingo duzu, hango Sheraton hotelean gela bat hartu eta nobela bertatik goxo-goxo idatzi, berak fruitu tropikalen zukua eskeintzen dizun bitartean?

NABIL: Ni, loco, loco, hemen. Eta zuek ere bai, loco zaudete.

SARA: *(Joniri, gogor)* Koldarra zara oso! *(Nabili, samur)* Non izango zara hemen baina ongi-etorriagoa?

JONI: Zalantzak izan ditut lehenago. Konbentzitu nau abestia ezberdin geratuko zela, berezi, eta azkenean onartu dut ideia. Gainera, aldi berean sekulako mesedea egiten nizun, Nabil. Orain, bat ere ez. Ez abestirik, ez lorazainik... Ez eta emazterik!

Txanpain-botila hartu, SARARI apuntatuz irekitzen du PUUN! SARAK kortxoa saihesten du. JONIK txanpain botilatik irrikaz edaten du. Eta badoa estudiora, botila ahoan.

SARAK ez daki zer egin, Nabili begirutzen dio. Azkenean, korrika doa JONIren atzetik.

NABILEk alde guztietara begirutzen du, bakar-bakarrik da. Ardo-botila ireki, basoa bete eta edan egiten du. Gero, SARAREN mahaira gerturatu eta sakeleko telefonoa hartzen du, bere galtzetan gordeaz. SARAREN poltsoan hasten da kuxkuxeatzen. Ez du ezer aurkitzen. Kaxoi batzuk irekitzen ditu. SARA sartzen da.

SARA: *(hotz)* Diruaren bila hemendik alde egiteko?

NABIL: Eeee, no, no *(erreakzionatuz, disimuluan)* Mersi, Sara. Benetan zu ona niretzat, good with me. Why? Zergatik? Ia ez dakizu nor naizen...

SARA: *(lasaituz)* Zuk ba al dakizu bada ni nor naizen?... Gainera, irakurri dut zure familia nondik datorren. Tribu hori, Pashtungak. Oso harroak omen zarete.

NABIL: Aita eta ama Beshamen daude orain, amona eta aitona eta ...

SARA: Himalaya mendikatearen ondoan bizi zarete. Txinatik oso gertu, ez?

NABIL: Ni hirian jaio. Beti hirian. Ni pashtung gutxi naiz. Ni behin egon han.

Ni hiriko merkatuan saldu edozer gauza. Hango bazaar-etan belarrak saltzen dituzte doctors, eee, medikuek.

SARA: Ikasketak dituzten medikuek ere belarrak saltzen dituzte?

NABIL: Ez, ez. "Belarren medikuak" dira. Batzuetan ez saldu belar onak. Horregatik nik ikasi nahi university-n. Animaliak sendatzeko eta baita pertsonak.

SARA: (*motz*) A, pertsonak sendatzeko ere albaitaria izan nahi duzu? Hobe zenuke lehendabizi gauza bat burutu eta gero bestearekin hasi, ez? Pakistanen zenbat urte ikasi zenituen?

NABIL: (*isilune luze baten ondoren, urduri*) Bi... Han oso zaila. Diru asko behar.

Merkatuan jende asko saltzen, jende asko gose. Jende asko.

SARA: Aita zurekin bizi zenean, ondo bizi zineten?

NABIL: Aitak eta osabak animaliak erosi eta saldu herrian, goran, mendian, Karakorum Highway ondotik pasatzen den herri batean. Haiek saldu batez ere hango ardia eta ahuntz basatia, eta faisaia. Gero hasi animalia ederrak enkargatzen ehiztariei, faisaia is very beautiful. Behin, Rawalpindira etorri animaliak saltzera, rich people-ri. Animaliak,

nola esan, lehortuta. Eta saldu asko. Eta erosi etxea handia eta gauza asko. Eta animalia bereziak saldu rich people-i, dirudunei. Ni jaio, ondo bizi. Egun batean aitari Pashtung batek injustizia egin eta insult ere bai. Aitaren animaliak la maladie, kutsatuta zeudela esan, inork ez guri erosteko.

SARA: Zergatik?

NABIL: Aitarekin ados ez egon jarritako prezioan eta aitak ez jeitsi preziorik. Nik hor asko ikasi. Orduan revenge... Badal esaten dugu.

SARA: Mendekua?

NABIL: Bai, aita Pashtung tribuko legeak jarraitu beti eta orduan mendekua hasi haien aurka eta mendekua inoiz ez bukatu... Aita geratu dirurik gabe, inork ez erosi. Mendekua ondoren. Beshamera bueltatu bizitzera amarekin. Ni gelditu 'Pindin bizitzen. 12 urte nituen.

SARA: Eta mendekua... Zer egin zioten dirudunari?

NABIL: Guk jo. Gogor. Berari eta familiako gizon guztiei. Nik lagundu.

SARA: Tribuko kodeak jarraitzen dituzu zuk? Esan nahi dut, jada ez zara han bizi...

NABIL: No. Hemen ez, baina, ez dakit, gauza asko ezin ahaztu. Gainera, emaztea han dago... (*pentsatuz*) Yes, gelditu zaizkit lagunak eta familiako batzuk, haiek esango zerbait arraroa ikusten badute.

SARA: Zer esan nahi duzu?

NABIL: Look, Sara. Ni hemen zurekin, ardoa edaten, great, gustatu. Beautiful. Halere, nire emaztea han, horrela, hizketan, gizon batekin... Aitak esango: hil gizon hori familiaren izena zikindu duelako.

SARA: (*isilune luze baten ondoren*) Hala eta guztiz ere, aita ez da zurekin bizi, nola jakin dezake berak zer egiten duen zure emazteak...

NABIL: Jendeak hitzegin. Eta aitak jakin.

SARA: Eta zuk horrela pentsatzen duzu, esan nahi dut, emazteari zerbait egingo zenioke beste gizon batekin hitzegiten ikusiz gero?...

NABIL: Hemen normala da eta ohitu naiz. (*duda-mudatan*) Ez dakit. Ez, ez naiz ohitu. Gainera, nik badakit: emazteak ez du hitzegiten gizonekin, eta egiten badu, malo. KO. Han horrela dira gauzak. Pentsatuko dut.

(*ISILUNEA*)

Ardoa edaten du, bi baso segidan. SARAK harriduraz eta maiteminez begiratzen du.

JONI ZIRT taldearen abesti zatia entzuten da.

ABESTIA: Belazean etzanda,

Nire zain zinela

Uste nuen

Belar luzeen besoak

Zure hankekin nahastuak zeudela

Uste nuen

Oinak arin

Mugitu nituen

Zureganantz

Belazean etzanda zinela

Erleak

Ni geldiarazi nahian

Bihotza bero

Zuregana

NABIL: Musika animaliak lasaitzeko, very good.

SARA: (*zutituz, seduzituz*) Apartekoa. Ba al dakizu gure tribu zuri zozo honetan, zein den idatzi gabeko araua musika ederra entzuterakoan?... Ba, gizon-emakumeak elkarrekin badira, batez ere ardoa edan ondoren, dantzan hastea, eta gizonak lotu-lotu heltzea gerriazpitik emakumeari eta emakumeak gauza bera egitea gizonari lepotik. Eta araua betetzen ez duenak emakumearen ohorea birrinduta uzten du. Batez ere emakumea dantza egiteko irrikan baldin badago.

SARAK NABILI lepotik heldu dio. NABILEK araua prestu jarraitu du. Dantzan hasi dira.

NABIL: Eta zer gertatzen da batek dantzan ongi ez badu egiten?

SARA: Bestearen eskutan dago. Edo erakutsi egiten dio, edo gizonak oinak zapaltzen dizkion bakoitzean, emakumeak zapaldu egiten dizkio bueltan.

NABIL: Zuk zer erabaki?

SARA: Nahi duzun guztia erakutsiko dizut.

Dantzan egiten dute, lotu-lotuak.

DAVID sartzen da lorategitik, eskuan danbor bikiak dakartza. Erdi ezkutuan geratzen da, begira, geldirik.

SARAREN sakeleko telefonoak jotzen du. Bata bestearengandik aldendu egiten dira.

SARA mahaira doa, erantzutera, baina ez du aurkitzen telefonoa. Sakelekoak jotzen jarraitzen du. NABILEK paltrikatik ateratzen du telefonoa eta luzatu egiten dio. SARAK zur eta lur begiratzen du. Erantzutera doanean, deia mozten da.

DAVID: Hello! (*baldar*) Zera, barkatu baina txirrina jo eta jo egon naiz atarian eta, ez zenutenez erantzuten, azkenean okurritu zait sartzea lorategitik... (*ironiaz*) Giro samurrean, e, Sara...

SARA: (*ironiko*) Ongi dakizu zuk Joniren musikak zein samur jartzen nauen.

JONI azaltzen da, eskua dakar n txanpain-botila hutsik. NABIL danborra hartzera doa.

SARA: *(burua astinduz, suspirioka)* Basoen bila noa.

Sukaldera aldegiten du.

JONI: *(mozkor, Davidi sorbaldatik helduz)* Sekulako ideia eduki diat! Txanpain-botila boligrafo batekin *jipoituko* dugu eta diskako bigarren abestian txertatuko dugu. Zer iruditzen?! Diskari deituko zioagu: “Botila-jotzea, mundu osoaren plazerra”.

DAVID: Txanpain-botila hustu ondoren, Joni, ideia onik ez.

NABIL danborra jotzen hasten da.

DAVID: Horrek ere edango zuen...

JONI: Kakalardoari txanpaina eskeini, nik???

NABIL deseroso eta baldar ari da danborra jotzen. Utzi egiten du.

NABIL: Ez posible. Ez posible.

DAVID: Orain atzera egiteak ez du balio. Hi, Joni, hasi probak egiten eta akklaratu behingoatik...

SARA agertzen da eskuan baso gehiagorekin. Baso bat DAVIDentzat, bestea NABILEntzat. NABILi eskaintzen dionean begira gertatzen zaio. NABILEk ez du basorik onartzen eta aldendu egiten da.

NABIL: Hemen Sarak lan eta lan. Guk molestatu.

JONI: Harrigarria, musulman bat emakumea kontuan izaten...

DAVID: Tira, Joni, arrazoia zeukak eta. Estudioan sartuko gaituk eta han bai, buru-belarri, gauzak ederki aterako dituk. Zentzua hartuko zioagu danborrari eta abestiari.

SARA: *(ozpin)* Jonik zentzua hartu?

DAVID: *(ironiko)* Zuk lagunduta, esan nahi nuen.

JONI: *(barrezka)* Hara non, burbuilek salbatu nauten! Sekulako zentzua hartu diot Nabilen nobelari, Sararen danborrari eta botilako abestiari, izor hadi.

NABIL: *(aprobetxatuz)* Ni banoa...

SARA: *(jertsetik heltzen dio Nabili)* Zu bazoaz eta ni, zurekin!

JONIK ezin du sinetsi entzun duena. Burua makurtu eta alde batera eta bestera mugitzen du.

DAVID: *(aldatuz)* Lorategia eszenatoki polita bihurtu duk, Joni. Pentsatzen ari nauk, bideoklipa hortxe hasiko dugula.

JONI: Ahaztu ezak. *(harro, mozkor)* Bideoklipetan ez da azalduko etxerik ez eta pertsonarik. Ideia berriak sartuko ditugu, ez da ohiko klipa izango. Ez da ezer ez azalduko. Ideia berri polita, ez?... Ez al da hori nahi duzuen, berrikuntza berrikuntzaren izenean?... Eeee, Sara?

DAVID: Jode, gaur zuen urak sekulako zikinkeria dakar.

SARA: *(danborrak hartuz)* Tira , Nabil. Zoaz ditzosozko proba hoiek egitera.

NABIL: No.

SARA: *(Nabili eskutik heltzen dio, oilartuta)* Estudioan sartu baino lehen, kontratua sinatuko dizu Jonik.

DAVID: Fiuuu! Hemendik lehor ateratzea zaila izango duk, Joni.

JONIK txanpain-botilari ostikada ematen dio, izkin batera bidaltzen du.

JONI: *(SARari, zabar)* Iruditzen zaizu hirugarren munduko batek gure diskari bizia emango dioela, danbortxo batzuk jo ondoren. Ukitu exotikoa! Utikan zuen karidade musikala!

DAVID: Barruko su horrek ahotsa kixkalduko dik, Joni. (*sorbaldatik helduz*) Tira, lasai hadi... Estudioan itxarongo diat.

*SAR*Ari danborra kentzen dio Davidek eta joan egiten da.

SARA: Mozkormina zenuen... Mozkorraldiaren behar gehiegi azkenaldian, ez?

Errealitatea irentsi ezin eta...

JONI: (*mozkor hitzak*) Errealitateak ni irentsi baino lehen, oraintxe, bai, hitz egin nahi dut Nabilekin, nik bakarrik! Audientzia soberan dago, behingoagatik.

*SAR*Ak *NABIL* eta *JONI* begiratzen ditu. Ez daki handik joan ala ez.

SARA: Kontzertu atsegina emango al diozu eskusiban berari!

Azkenean, atera egiten da.

NABILEK ardoz betetzen du basoa. Edan ondoren, berriro betetzen du eta baita Jonirena ere. Eskaini egiten dio. JONIK hartu eta kolpez edaten du. Gero burua astintzen du, bueltaka hasten da, isilik.

NABIL gerturatzen zaio, eskuarekin gerarazten du.

NABIL: Don't worry, Joni. Zure etxea da, arrazoi duzu. Ni ospa. Zuk irabazi, OK.

JONI: Bai, irabazteko partida erraza da niretzat, azalean... Baina, benetan, ez da hain erraza: ez zu kanporatzea, ez besteen ideiak proba egin gabe geratzea, ez eta Sara uztea...

NABIL: Nik ez nahi KO nire planak. Beste moduan lortuko ditut paperak.

JONI: Nola? Nora joango zara? Ez al zaude zorrak itota? Pasaporte ordaindu eta visa ordaindu beharko duzu, ez? Ala Miarrritzeko lanarekin jada ordaindu zenuen?

NABIL: *(eseriaz, lur jota)* Egun hauetan lorategian, belar luze hoiek moztzen eta arantza artean eta nola da... *(keinuka "sastraka" azaltzen dio)*

JONI: *(malenkoniatsu)* Sastraka itsuan...

NABIL: Bai, nik sastraka moztu, gero erre! *(gainetik zama handia kendu balu bezala)* Oso pozik ni. *(liberazioa)* Aaaa! Dena garbia! Dreaming... Ametsetan. Loreak hazi eta landareak ederrak, piskanaka. Eta ni hori ikusi eta ni landareak bezala, bizitza berria hemen, ederra. La vie, cést jolie. Karakorumeke loreak gogoratu gainera.

JONI: Han goran, Karakorum mendikatean loreak hazten dira????... En fin, oui, cést la vie. Inguruan gauza ederrak hazten direnean, pentsatzen duzu zuri ere iritsiko zaizula... Baina lau ostotako hirusta lortzeko ere, hazia behar da lehendabizi, Nabil. Eta landatu egin behar da hazia.

NABIL: Nik ez jakin asko, baina ikasi, eta lortu jardin ederra, eta bizitza ederra. Nik nahi, zuretzat Joni, eta niretzat.

JONI: (*zintzo*) Hitzak edo abestiak ahoskatzea bezain erraza balitz... Nik bizitza ederra daukat, edo neukan... (*aldatuz, gaizto*) Halere, Miarritzen edertasunez inguratuta bizi zinen, ez?

NABILEK ez du erantzuten, isilik, ardoa edaten du.

JONI: Han ez zara urtebete izan, ez?

NABIL: (*buruarekin ezezkoa egiten*) Parisen, the boss. Guk jefeari ordaindu behar pasaporte eta visa. Berak gu lanean jarri: kalean dirua eskatzen edo top-manta, badakizu?

JONI: Izorra hadi. Egilea nauzu eta!

NABIL: Dirua the boss-entzat. Guretzat, zero. Azkenean guk erabaki dirua ez eman bossari. Eta diska pila bat hartu, beste lagun batekin. The boss gure atzetik, hil nahian. Eskapatu eta gu trenean sartu, Bordeauxeraino. Han diska guztiak saldu. Baina Frantzian legal ez: pasporterik gabe, paper bat ere gabe.

JONI: (*jabetuz*) Ez naiz harritzen Sarak zure nobela idatzi nahi izatea.

NABIL: Konstrukzioan lana, Bordeauxen. Dirudun batek etxea Miarritzen, konpondu, obrak behar... Guk egin. Nik ikusi Miarritzen, money, money. Eta nik esan ni jardnier very good. Eta ni lanean hasi.

JONI: Eta han ezagutu zenuen chef eskualduna?

NABIL: Oui, oui. Fermin Hiribarren. Tres jolie. Fermin beti hizketan! Blablablabla.

Beti. Nik asko ikasi baina lorategia, oso oso handia. Nik dena ezin. Difficult.

JONI: (*barrezka, bere artean, mozkor*) Seguru hortentsia perfektuak eskatzen zizkizula!

Frantsesak hain kakapirriak izan daitezke. Edo Alain Delonen ezpainen koloreko larrosak nahi zituzten, ez al da hala?

NABIL: Les fleurs du mal, esaten zidan niri. Nik lau hilabete agoantatu les fleurs du mal.

JONI: Klaro, klaro... Baina, zer? Eeee, ospa egin zenuen zuk zeuk?

NABIL: (*moztuz, burua estaliz, lotsatuta*) Oui.

JONI: Jodeee... Dena den, zure desioa albaitaritza ikastea da, ez? Esan nahi dut, “animalien medikua”. Bi urte zuk ikasketak Pakistanen, ez?

NABIL: Eeee... Ez, Joni. Zero ikasketak nik. Zero.

JONI: (*moztuta*) Aaaaaa.

NABIL: Nire familiak, no money. Aitak dena galdu. Nik ikasi nahi beti baina ezin. Han ere saldu gauzak, batzuetan.

JONI: Konforme. Albaitaritza, zero. Miarritzekoaren ondoren, zer egin duzu gure etxeko lorategian azaldu arte...

NABIL: Ni etorri Hendaiara. Fermin Hiribarrenek esan lana konstrukzioan Hendaian edo kamarero, Hotelean, berak han lagun bat. Baina nik Ferminen laguna ez aurkitu eta nik la plagen egin lo egun batzuk. Gero nik erabaki Ferminek esan bezala: hegoaldera etorri.

JONI: Eta Irungo “Karitasera” joan zinen eta jaten eman zizuten eta gero eraikuntza lanetan hasi zinen. Asmatu dut?

NABIL: Karitasen bi egun. Nik ezagutu afrikarrak, “Josemari” moduan lanean batzuk eta pisu batean lo bai. Herri askotako festetara joan, nik saldu gauza asko eta euskaraz ikasi. Behin Ordiziako festetan, neska batekin in love. Dantzan eta gero bere etxean, egun asko.

JONI: (*altxatuz, basoak ardoz betez*) Sagardotegira joan zinen neskarekin?

NABIL: Eeee... A! Sagardoa nik edan, bai. Neskak lan asko egin, Legorretakoa, the girl not in love with me baina so sweet. Neskak agur, ospa Nabil! So, again berriro bizi hogeitaz gizon etxe txikian. Denak Josemari edo konstrukzioan. Orain Zapateroren legea, oso pozik. Nik deitu familiari etortzeko. Emaztea eta seme-alabak ordea ezin etorri, no money. Lehengusuak bai, pagatu eta Parisera joan eta handik pakistandar guztiekin

etorri zen Hendaiara herenegun. Ni bila joan estaziora baina orduan jendarmeak azaldu eta gure atzetik hasi. Nik korri, korri, korri. Azkenean ezkutatu Hendaia-Irungo zubipean. Nik ikusi nola nire lehengusua harrapatu poliziak. Gero ni Irunera heldu, baina ere polizia espainola asko. Ez dakit, ni erotuta bezala hasi korrika, like crazy, crazy... Agian ez poliziarik nire atzetik, baina nik hori uste. Azkenean, sartu nintzen zuen jardinean.

JONI: (*ironiko*) Kanpotik perfektua den auzoan sudurra sartu duzu... Eta ez duzu bertatik atera nahi...

NABIL: Orain lana nik ezer ez. Baina zintzo lan egin nahi dut eta gero emaztea ekarri, ikasten hasi. Gaur hitzegin dut 'Pindiko beste lehengusuarekin, emazteari esateko honera laister etorri.

JONI: Emaztea eta seme-alabak ekartzeko makina bat diru beharko duzu. Gainera pagotxa dela iruditzen al zaizu? Tira, Nabil, ez al zarete hobeto zuen herrian, gure itxurazko edertasuna ikusi, entzun eta sentitu gabe?

NABIL: Zu joan hara, ni bezala bizitzera, Pakistanen. Ni hemen gelditu, zure etxean.

JONI: (*ziniko*) Elkartruke musikalera mugatuko gara, iruditzen bazaizu... Nik ez dakit nola lagun diezazukedan. Eraikuntza lanetan, zergatik ez dizute bada kontraturik egingo? (*aldatuz*) Zuk jakingo duzu. Orain danborren probak egingo ditugu.

NABIL: Nik danborrak ez jo, Joni. Papera sinatu aurretik.

JONI: (*pazientzia galtzen*) Nola sinatuko dugu zerbait! Ez dakigu nola geldituko den abesti osoa danborrak itsatsi ondoren, egin egin beharko dugu lehendabizi, ez? (*baretuz, serio*) Gurekin ez duzu taldekide bezala kontraturik izango. Izatekotan gauza bakan batetarako sinatuko genuke zerbait. Paper horrek balioko al dizu legalizatzeko?

NABIL: (*urduri*) Zuk niri zukua atera, ez. Paper bat izan nahikoa, bai. Gero nik zuri pakean utzi eta beste lana egin, ulertzen?

JONI: Aaaa! Hori nire partetik tontoa litzateke. Ni ezaguna naiz, ezin dut edozer gauza edonola egin. Legearen aurrean gauza bat sinatu eta atzetik... Ez, ez. Gero etortzen zara niregana txantaia egitera, edo esaten didate ez dudala sinatutakoa betetzen edo, batek daki. Gauzak egitekotan, behar diren bezala. *JONI ZIRT* taldeak eta, are gutxiago abeslariak, ezin du arazo itxusietan sartu.

NABIL zutitu egiten da. JONI ere bai. NABILEK belarriak tapatzen ditu. Ez du entzun nahi. Sofa gainera doa bueltan, etzatera, buruz-behera, eskuekin belarriak estaliaz.

DAVID eta SARA sartzen dira.

SARA: (*irribarrea behartuz*)Hemen kamamila behar da.

NABILENGANA gerturatu eta burua laztantzen hasten zaio.

DAVID: Kamamila. Gauza zozoagorik ba al da munduan? Halere, ondo zetorrek.

Txanpainak eragindako zurrunbiloak baretzeko, primeran, Joni.

JONI: Sorgin-haizea eta zurrunbiloak nork ekarri dituen argi zegok, David.

SARA: Zertan zarete?

JONI: Musikarekin joango zaizkit aje guztiak.

SARA: Baina, Nabilekin zertan zara?

JONI: Sara, nahi duzuna egin ezazu, libre zara. (*jeloskor*) Eskuak jarrizkiozu nahi duzun tokian. Kontua bada nobelarik errealistena idaztea, haragizko gizona hor duzu, bai... (*mozkor*) Eta ni ondoan, haragizkoa ere...

SARA: (*etsita*) Jainkoarren! Goitik behera ulertzen nauenik ba al da munduan? ... Nik paperean sortuko dudana, akaso! (*baretuz, lehor*) Kopla gutxiago, helduiozu mamiari, Joni. Ez dakit zerbait adostu duzun berarekin. Lorazain edo musikari bezala kontratatuko dugu! Eta lorazainik ez baduzu nahi, etxe-garbitzailea botako dugu eta Nabil jarriko dugu etxea garbitzen.

DAVID: Etxe-garbitzailea ez al duzue kolonbiarra, nirea bezala?

JONI: (*Sararengana gerturatuz*) Oraintxe esan duk egia! Izorra dadila bata bestea jartzeko, ez? A ze saltsatan sartzen ari zaren, Sara.

SARA: (*urduri*) Ni konponbide bila nabil. Zuk okerrak aurkitzen dituzu bazter guztietan, zakurrak hezurak bezala.

NABIL: (*Sararengana, samur*) Karakorum mendietan, Pakistan eta Txina arteko mugan, badago “Himalayan rare blue poppy” lorea, berezia. Da poppy urdina, oso arraroa.

SARA: (*samurtuta*) Amapola urdina? (*amestuz*) Himalayako amapola urdin ezohikoa. Mmm! Eta zortzi mila metrotara bizi da!

NABIL: (*emozioz*) Pentsa! Lorea ia zerua ukitzen bizi! Kolore urdina duen amapola!

SARA: Lorategian horrelako bat haziko balitz!

NABIL: Nik inoiz ez ikusi, baina zu bezalakoa da, seguru.

Abesten hasten da.

NABIL:

Belazean etzanda,

Nire zain zinela

Uste nuen

Belar luzeen besoak

Zure hankekin nahastuak zeudela

Uste nuen

SARAk jarraitu egiten dio, biek abesten dute.

SARA eta NABIL:

Oinak arin

Mugitu nituen

Zureganantz

Belazean etzanda zinela

Erleak

JONIk isilarazi nahi ditu, baina ez diote kasorik egiten. SARAK ETA NABILEK abesten jarraitzen dute.

Ni geldiarazi nahian

Bihotza bero

Zureganantz

Bestearekin

Aurkitu zintudan arte

Bestearekin, belazean etzanda

Bihotza bero.

JONI: (*Davidi, etsita*) Zure kamerarekin bi hoiek jarraitu behar dituk, toki guztietara. detektibe lanetan arituko haiz, niretzat. Grabatu egingo dituk eta nik salaketa jarriko diet!!

DAVIDEK kamara ateratzen du paltrikatik. Piztu eta grabatu egiten ditu, SARAK eta NABILEk ozenki abesten duten bitartean. JONI elkartzenn zaie azkenean, mozkor, gaizki abestuz. DAVIDek kamararekin grabatzen darrai.

AMAIERA

Mugako loreak

Egilea: Yurre Ugarte

Errej. Intel. Zenb.: 2.673

